

## **JARDUERA EKONOMIKOAK ETA SALTOKIAK ANTOLATZEKO EAEko LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ETA DONOSTIAN IZAN DEZAKEEN ERAGINAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeke EAEko Lurralde Plan Sektoriala dela eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonentzako Batzordean 2018ko otsailaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia jardueretarako lurzoru publikoa eta merkataritza ekipamenduak sortzeko lurralde plan sektorialaren berrikuspen partzialaren aurrerakina, merkataritza gune handien antolamenduari buruzkoa, mahai gainean du. Antolamendurako hiru irtenbide jorratu ditu, orain eragileekin lantzen ari direnak, eta planaren berrikuspena aurten onartuko da. Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak hiru urte behar izan ditu plan sektoriala berrikusteko, baina prozesua abian da dagoeneko. Erregulazioa beharrezkoa da. Izan ere, merkataritza gune handiak sortzeko edo are gehiago zabaltzeko proposamen ugari daude mahai gainean; haietako batzuk, Donostian bertan.

Otsailaren 12an jorratutako interpelazioak honela zioen: "Zer dela eta Udal Gobernuak, Jaurlaritzak araua onartu arte, lantzen ari diren merkataritzaguneak ez ditu berrikusten?"

Alkateak, batzordean, bi ideia eman zituen. Batetik, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak araua onartua ez izan, merkataritza gune berriak gauzatzea legezkoa dela. Eta bestetik, inguruko herrietan ere antzeko proiektuak daudela.

Eta egia da Gipuzkoa ekialdean merkataritza guneekin lotutako proiektu ugari daudela mahai gainean. Hain zuzen ere, gaur egungo guztiak onartuko balira, gune handien zabalera bikoiztu egingo litzateke oso epe laburrean eremu txiki honetan; ia 400.000 metro karratu, guztira.

Horregatik, Bidasoaldeko, Oarsoaldeko, Donostialdeko eta Buruntzaldeko hainbat hautetsik Eusko Jaurlaritzari aurreko mugak berrezartzeko eta araua onartu bitartean merkataritza gune berriak irekitzeko eta oraingoak zabaltzeko moratoria proposatu dute.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Inguruotan mahai gainean diren proiektu guztiak bideratuko balira, kaltetu nagusia dendari txikiak izango liratekeen arren, eta moratoria mehatxu horri aurre egiteko aukera izanda, ez dakigu zer egiteko asmoa duen Udal Gobernuak. Gure ustez, aukera hori aprobetxatu beharra dago, hiriaren eta bertako merkataritza txikien alde.

Honegatik guztiagatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA**

1- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Eusko Jaurlaritzak Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAeko Lurralde Plan Sektorialaren berrikuspena onartu bitartean, onar dezala merkataritza gunee berriak sortzeko edo gaur egungoak zabaltzeko moratoria.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**